

IGERIAN IKASTEKO SUSTAPEN KANPAINA **2023 - 2024 IKASTURTEA**

Donostia Kirolak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleei zuzenduriko Igerian Ikasteko Sustapen Kanpaina bultzatu eta antolatzen du.

1.- Parte hartzeko baldintza orokorrak.

- 1.1.- Kanpainan parte hartuko duten eskola-umeak Lehen Hezkuntzako 1., edo 2. mailakoak izango dira.
- 1.2.- Ikastetxe bakoitzak lehen aipatutako mailako nahi adina talde inskribatu ahal izango du; baina talde hauek, irizpide orokor gisa, 8 lagunekoak izango dira gutxienez eta 45ekoak gehienez (bi gela).
- 1.3.- Ikastaro bakoitzak 20 saio izango ditu gehienez.
- 1.4.- **DONOSTIA KIROLAK** ikastaro bakoitza aurrera eramateko beharrezko diren bitarteko guztiak eskura jartzeko erantzukizuna izango du: instalazioa, ordutegiak, irakasleak eta eman beharreko programa teknikoa, beti ere Gipuzkoako Igeriketa Federazioak jarritako irizpide teknikoak jarraituz. Garraioa eta irakasle laguntzaileak, halakorik behar izanez gero, ikastetxe bakoitzaren erantzukizuna izango dira.
- Ikastetxeek Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailan kanpaina egin nahi badute, Donostia Kirolak instalazioak dohainik utziz lagunduko die. Kasu honetan, saioak emango dituen pertsonala ikastetxeen ardura izango da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen duen diru-laguntza eskatzeko aukera edukiko dute.
- 1.5.- Ikastaroa hasi baino 10 minutu lehenago igerilekuko aldageletan egon beharko dute eskola-umeek, eta taldearen ardura duen irakasleak aldageletan egon beharko du bere eskola-umeekin. Irakasleak, era berean, igerilekuraino lagundu beharko ditu eskola-umeak, eta bertan gelditu ikastaroaren lehendabiziko egunetan, gutxienez; eta, edozein kasutan, taldea jarduerari egokitzen den neurrian, kanpainako monitoreak egoki ikusten duen arte.
- 1.6.- Eskolak parte hartuko duen talderen batean, behar bereziak dituen eskola-umeren bat egonez gero, eskolako irakasle bat egongo da igerilekuan, nahitaez, ikastaro guztian zehar, monitoreei laguntza emateko.

Ekintza euren taldearekin batera egin ezin dezaketean eta langileria tekniko osagarria behar duten eskolaumeen kasuan, ikastetxeak eskaera egin beharko dio Donostia Kirolari idatziz, taldearen izenematea egiteko duen epe berean.

Eskaera honen onarpena, erreserbaren egiaztapenaren gutunean zehaztuko da eta kasu honetan, eskolaumeen taldeak ezingo ditu 45 ikasle baino gehiago izan.

- 1.7.- Eskola-umeen irakaslea edo arduraduna ezingo da armairutxo gunera kaleko oinetakoekin pasa, horretarako txankletak erabili beharko dituelarik. Era berean, igerileku gunera ezingo da pasa kaleko janzki edo oinetakoekin.
- 1.8.- Eskola-umeen irakaslea edo arduradunak bainu txanoa erabiltzea derrigorrezkoa dela gogoraraziko die bere ikasleei; eta, era berean, igerilekuan sartu baino lehen nahitaez duxatu behar direla. Horretarako igerilekuaren eremuan bertan jarritako duxak erabiltzea gomendatzen da.
- 1.9.- Gomendatzen dugu armairutxo bi edo hiru ikaslek batera erabiltzea.
- 1.10.- Eskola-umeek proba bat egingo dute ikastaroaren lehenengo egunean igeriketaz duten ezaguera neurtu ahal izateko; horrela, maila horren arabera, monitore bakoitzeko 15 eskola-umeen taldeak osatuko dira.